



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

Terence Blanchard-ek Abdullah Ibrahim-ekin joko du Hugh Masekelak bira bertan behera utzi behar izan du, eroriko baten ondorioz

Terence Blanchard tronpetista estatubatuarrak Hugh Masekela hegoafrikarraren tokia hartuko du Abdullah Ibrahimen kontzertuan, uztailaren 25ean 20:00etan, Trinitate plazan.

New Orleansko eskolaren erakusle adierazgarrienetakoa da Blanchard: sentsibilitate artistiko handiko eta perfekzio tekniko izugarriko tronpetista.

Hugh Masekelak eroriko bat izan berri du eta sorbaldan hartu du mina. Ondorioz, epe luze batez ezingo du tronpeta jo.

Abdullah Ibrahim & Ekaya + Terence Blanchard

Abdullah Ibrahim (pianoa), Terence Blanchard (tronpeta), Jonas Gwangwa (tronboia), Noah Jackson (baxua, txeloa), Will Terrill (bateria), Cleave Guyton Jr. (saxo altua, txirula, klarineta, piccolo), Lance Bryant (saxo tenorra), Andrae Murchison (tronboia, tronpeta), Marshall McDonald (saxo baritonoa)

Hegoafrikako musikari bikain hau heldutasun artistiko ikusgarrira iritsi da, bere azken disko eta emanaldietan argi erakutsi duen bezala, eta esan daiteke esperientziaren, sentikortasunaren eta sormenaren gailurrean dagoela. Lurmutur Hirian jaio zen, 1934an. Haurra zela, musika erlijiosoa, abesti tradizionalak eta jazz asko entzun zuen eta soinu horien aztarnak oraindik ere antzematen zaizkio bere musikan. Lehen urrats musikalak Duke Ellington berberaren eskutik eman ondoren, Hegoafrikako instrumentista belaunaldi distiratsu baten ikur eta estandarte bihurtu zen Abdullah, garatu zuen estilo ezaugarriari esker. Azken berrogei urteotan, etengabe txalotua izan da munduko agertoki eta jaialdi garrantzizkoenetan. Donostian eskaini dituen emanaldiak oraindik jazz zaleen oroimenean daude. Ekaya taldearekin datorkigu Abdullah Ibrahim, eta Terence Blanchard errefortzu ordainezinarekin. New Orleansko eskolako tronpetista nabarmenenetakoa da Blanchard, Art Blakey-ren Jazz Messengers taldean hezitakoa, eta boskote-proiektu propioa ere badu. Gainera, hainbat film



Donostia
SAN SEBASTIÁN
Uztaila / Julio / July
20-25 2017

famatutako soinu-bandaren konposatzailea da (*Malcolm X, Inside Man, Talk to Me*), eta bere obra berriena *The Comedian* filmean entzun daiteke, Robert De Niro protagonista duela.

Heineken Jazzaldiari buruzko Spotifyren zerrenda ofiziala

Heineken Jazzaldia 2017 izeneko playlist-ean

(<https://play.spotify.com/user/mmartin2009/playlist/7uVlwKyrAYQ8KgCjM2O7ZH>) Jazzaldian parte hartuko duten artista guztien musika entzun daiteke. Zerrenda hori oso erabilgarria da komunikabide guztientzat, ikus-entzunezkoentzat bereziki, baina baita edozein ikus-entzulerentzat ere.

Sarrerak salgai

52. Heineken Jazzaldirako sarrerak Heineken Jazzaldiaren (www.heinekenjazzaldia.eus), Donostia Kulturaren (www.donostiakultura.eus/sarrerak) eta Kutxabanken (tickets.kutxabank.es) web orrietan eros daitezke.